

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak Andorrari eman dio Pirinioetako Lan Elkartearen lehendakaritza bi urteko agintaritza amaitu ondoren

Erakundeak 31. osoko kontseilua egin du, datozen urteetarako ardatz nagusiak ezartzeko.

Jueves, 07 de noviembre de 2013

Nafarroak [Pirinioetako Lan Elkartearen](#) lehendakaritza eman dio Andorrako Printzerriari, lurralde mugakideen arteko lankidetzarako agintaritzan bi urtez egon ondoren. Hala, lehendakaritza txandakakoa izanik, Pirinioetako herrialdeak izango du 2013-2015 urteetan erakundearen agintaritza.



PLE-ren presidentzia aldatzeko ekitaldia.

Lehendakaritza aldatzeko ekitaldia PLEren 31. osoko kontseiluaren barruan egin da ostegun honetan, Iruñeko Baluarte jauregian. 350 partaide izan dira bertan, besteak beste, erakundea osatzen duten eskualdeetako agintariak.

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak gain, Luisa Fernanda Rudi eta Iñigo Urkullu Aragoiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak, Gilbert Saboya Andorrako Kanpo Arazoetako ministroa eta Francesc Homs i Molist Kataluniako Lehendakaritzako kontseilaria ere ekitaldian izan dira. Frantziari dagokionez, Akitania eta Midi-Pyrénées Eskualde Kontseiluetako lehendakariordeek parte hartu dute topaketan, François Maitia eta Marc Carballido lehendakariordeek, hurrenez hurren.

2014-2020 denboraldirako ardatz nagusiak

Bileran, [baterako adierazpena](#) adostu da: agintariak krisi ekonomikoan egon arren lankidetzaren kultura indartzeko nahia adierazi dute, eta 2014-2020 denboraldirako lankidetzarako programaren ardatz nagusiak jasotzen ditu.

Sei ardatz nagusiek honako helburu hauek dituzte: ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea; enplegu iraunkorra, laneko mugikortasuna eta lehia indartzea; ingurumena babestea eta baliabideen erabilera iraunkorra sustatzea; klima-aldaketara egokitzea eta dituen ondorioen arriskuak prebenitzea; garraio iraunkorra ezartzen laguntzea eta oinarritzko azpiegiturak hobetzea; eta gizartearen parte hartzea sustatzea.

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak adierazi duenez, helburua "pertsonek ongizatearen alde batera lan egitea" eta "mugarik gabeko Europa eraikitzen jarraitzea" da.

Ildo horretatik, Andorraren ordezkariak, erakundearen lehendakari hartzu berri duenak, PLE osatzen duten "lurralde guztiak elkartzearen" garrantzia azpimarratu du.

Bileran, agintariak "positiboki" baloratu dute Espainiak eta Frantziak PLEren hautagaitzari eman dioten babesa, Europako Batzordeak hura izenda dezan 2014-2020 denboraldiko mugaz gaindiko lankidetzaren programa kudeatzeko agintari.



PLE osatzen duten herrialdeetako ordezkariak.

Halaber, egungo programa (2007-2013ko Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzaren Programa Eragilea. POCTEFA) gauzatu den moduari buruzko balantze positiboa egin dute, aurrean amaitzen baita. Denboraldi horretan, PLEk 168 milioi euroren Europako funtsak kudeatu ditu [mugaz gaindiko 133 lankidetzaren proiektu](#) burutzeko. 226,8 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin da azkenean.

Azkenik, Nafarroak PLEren agintari izan denean egin duen lana eskertu da.

Bi bilera

Aldibereko bi bilera egin dira. Alde batetik, lehendakariaren urteroko bilera egin da, mugaz gaindiko lankidetzaren erakundea osatzen duten eskualdeetako agintariena.

Beste alde batetik, lurralde-lankidetzaren iraganeko, oraineko eta etorkizuneko aukerei buruzko lana egin da. Zehazki, 2007 eta 2013 artean egindako Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzaren Programa Eragilearen balantzea aurkeztu (POCTEFA) eta datozen sei urteetako lankidetzari buruzko Europar Batasunaren estrategia jakinarazi da.

Amaitzeko, bertaratu diren guztiak partaide izan dituen osoko bilera egin da. Bertan, eztabaidatutako gaien berri eman da eta erakundearen lehendakari hartzu aldatu da.

Halaber, PLEren Gazteria saria banatu da, 10.000 eurokoa. Aurrean, "Los oficios de las estaciones transpirenaicas" (euskaraz, "Pirinioetan zeharreko estazioetako lanbideak") proiektuaren sustatzaileek irabazi dute saria, gazteak Pirinioetako eski-estazio eta estazio termalekin erlazioetatik lanerako prestatzea helburu duen proiektua garatzeagatik. Ekimena Ariègeko (Midi-Pyrénées) Lycée des Métiers Joseph Marie Jacquard lizeoarena izan da, eta Aragoiko 3 kideren laguntza izan du: Pedrolako Siglo XXI BHI, Alcañizko Bajo Aragón BHI eta Huescako Innovación Pirámide LHko Ikastetxe Integratu Publikoa.

Saioa amaitzeko, POCTEFA "Pirineos de Circo" proiektua eratzen dutenek (euskaraz, "Zirkua Pirinioetan") emanaldia eskaini dute. Mendikatearen bi aldeetako hamar kide elkartzen dituzten zirkuko artea dinamizatzeko helburuarekin.

Pirinioetako Lan Elkartea

Pirinioetako Lan Elkartea 1983an sortu zen Pirinioetako inguruari lurralde mugakideen arteko lankidetzaren egitura emateko, Europako beste muga batzuetan daudenen antzekoa.

Erakundea honako eskualde hauek osatzen dute: Espainiako estatuan Nafarroak, Euskal Autonomia Erkidegoak, Aragoik eta Kataluniak; Frantziako estatuan Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon eskualdeek; eta Andorrako Printzerriak.

PLEren helburu nagusia Pirinioetako mendigunea garatzen laguntzea da, dituen erronkak kontuan hartu, ondasunak babestu eta lurraldeen arteko lankidetzaren sustatzea.

2005ean partzuergoa eratu zen eta, hala, Europako garapen-funtsak kudeatzeko agintaritzaren bere gain hartu zuen. 2012an Andorra gehitu zen eskubide osoko kide gisa erakunde horretan, Europar Batasunean egon ez arren.

Galería de fotos



Iñigo Urkullu eta Yolanda Barcina, Baluarterako bidean.



Bileraren une bat.



Barcina Lehendakariaren hitzaldia.